EKONOMIA JARDUERA


GeoEuskadi guneak eraikin bakoitzean garatzen den ekonomia jarduerarekin lotutako informazio espaziala ere hartzen du barne.

Eraikinak oinarri duten jardueraren arabera sailkatzeko, CNAE erabiltzen du, hau da, Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionala (Clasificación Nacional de Actividades Económicas), baina 10 motatako bere bertsio sinplifikatuan, gehi hainbat koloreren bidez identifikatzen den “hainbat” izeneko beste bat.


Adibide gisa, hona hemen geoEuskadi guneak eskaintzen duen informazioa Vitoria-Gasteizeko alde zaharrari eta Jundiz industrialdeari buruz, Vitoria-Gasteizeko mendebaldean kokatuta, Zuzatzo hirigune txikitik oso gertu. Euskal Herriko handienetariko bat da. Bertako 6.700.000 m2-etan 500 enpresa inguru instalatuta daude eta horiek 8.000 bat langile hartzen dituzte barne. Eraikin gehienak “hainbat jarduerei” eta “erauzketa-industriei, manufaktura-industriei eta abar” esleitzen zaizkie.



Sailkapenean erabilitako CNAE 10.



Ortoargazkia 2015 + CNAE Ekonomia Jarduera. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco. Zuatzoko Industrialdea, Vitoria-Gasteizen.



Ortoargazkia 2015 + CNAE Ekonomia Jarduera. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco.

Ekonomia jarduerarekin lotutako aukerak industriagunei aplikatu ezezik, nagusiki biztiegi-zonaldeak diren gunetarako ere erabilgarriak dira, horietan ere ekonomia jarduerak aurki baititzakegu, esate baterako, Vitoria-Gasteizeko alde zaharra. Sailkapenaren arabera, identifikazio kolorerik gabeko teilatua duten eraikinetan ez dago inolako ekonomia jarduerarik (zuriz ekonomia jardueraren geruzan).